

FUNTSEZKO ELKARTEA

Gure enpresa aurrera atera ahal izateko, funtsezko elkarteak sortzea beharra dugu. Hornitzaile eta bazkide sareak finkatu behar dira eta aliantzak egitea da gure helburua, horrela, baliabideak lortu eta lana antolatu edo banatu ahal izango dugu.

Gure enpresa diskoteka bat den horretan, hainbat enprekin egin beharko genituzke aliantzak, izan ere, lokal bat edukitzearekin ez genuke ezer lortuko, material gehiago behar dugu.

Alde batetik diskotekarentzat eremu handi bat beharko genuke, beraz Udaletxearekin hitz egingo dugu herrian dauden lokal handiak ikusi eta bat alokatzeko. Batetik, argia kontratatu beharko dugu, horretarako Erka enpresarekin jarriko gara kontaktuan eta behar diren antolatuko dute diskotekak izango duen argiztapena. Bestetik, musika eta DJ-ak lortzeko Herriko Arte Eskolako kideekin hitz egingo dugu eta beren ezagunekin egingo dugu lan. Hala ere, altabozak Grover enpresaren bitartez jarriko ditugu. Tabernariak lortzeko, lan eskaintza jarriko dugu herrian zehar eta herriko jendea hartzen saiatuko gara. Gazteen segurtasuna bermatzeko herriko udaltzain eta ertzainen laguntza izango dugu eta horrez gain, Prosegur enpresaren bitartez segurtasun neurri guztiak zehaztuko dira, leku segurua izan dadin. Bukatzeko, edariak DDI enpresaren bitartez lortuko ditugu.

Hornitzaile gehienak herrikoak direnez, garraioan ez dugu dirurik gastatu beharko eta diru hori beste zerbaitean erabiltzeko aukera izango dugu. Horrez gain, herriko ekonomiari lagunduko diogu, izan ere, herriko langileak eta enpresak izango dira gure laguntzaile.

Horrez gain, gazteekin lan egingo dugunez, badakigu askok ez dutela beren txartel propioa izango eta batzuetan zaila dela esku-dirutan ordaintzea, beraz banda magnetikoa duten txartelak emango dizkiegu gure kontsumitzaileei bertan dirua sar dezaten eta ondoren ordaintzeko erabil dezaten. Metodo honetaz baliatu ahal izateko, txartelak lortu beharko ditugu. Horretarako, Akrocard enpresarekin elkartuko gara. Baina hori ez da nahikoa izango, izan ere banda magnetikoen irakurle bat beharko dugu txartela hortik pasa dezaten eta ordaintzea burutu dezaten. Makina horiek egiteaz arduratzen den enpresa Tecnipesa Identificacion SI da eta gu horrekin lotuko gara.

Amaitzeko, edozein enpresetan bezala, gure diskotekan ere matxurak egon daitezke eta beharrezkoa izango da ahalik eta azkarren konpontzea. Horregatik gure enpresaren mantenuaz arduratuko den talde bat beharko dugu, edozein arazo egongo balitz ahalik azkarren konpondu ahal izateko. Horretarako ere lan eskaintza jarriko dugu herrian zehar eta tabernarien kasuan bezala, herriko jendea hartze saiatuko gara.